



Oinarri teknikoaren orriak, "Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturaren 2018" estatistikaren landa-lanak egiteko.

1.- Kontratuaren xedea

"Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturaren 2018" estatistikarekin lotutako informazioa jasotzeko landa-lana egitea, datuen kalitatea kontrolatzea, eta informazioa datu-baseetan sartzea.

2.- Informazio-helburuak

Finantzaketa eta Gastu Publikoak Kulturaren estatistikan eskatzen den informazioa honako printzipio edo elementu nagusi hauei dagokie:

- 2.1. **Administrazio eta entitate publikoek eskura duten kontatilitate-sistematik bertatik abiatzea.** Planteamendu operatibo eta bideragarria egitea, eta bertan lanerako oinarrizko erreferentzia gisa ikertutako entitateen partiden arabera kontabilitatea hartzea. Beharrezkoa ikusten bada, koefizienteak eta haztapenak aplikatzea desagregazio-maila handiagoa lortze aldera, elkarrizketa presentzial eta banakakoaren ikuspegitik, udal bakoitzeko arduradunen esandakoaren arabera.
- 2.2. **"Kultura-gastu publikoa" kontzeptua hasieran bertan zehaztea:** hartara, informazioa bildu eta tratatzeko prozesuak erakunde informatzailearekin independentea den planteamendu komun bat izango du. Hala, definizio hau proposatzen da erreferente gisa: kulturara bideratutako gastu likidatua, obligazio onartuen fasean dagoena. Horrenbestez, "publiko" izaera finantzatzaileari lotzen zaio, eta ez hartzaileari.
- 2.3. Azterketa **2018ko gastu kontsolidatuan** oinarritzea, erakunde-maila desberdinen arteko kontabilitate bikoitzak saihestuz, bai eta obligazio onartuen (gastu likidatua) fasera iritsi den gastua ere.
- 2.4. 2018ko transferentzia arrunten eta kapitalezkoen zehaztapena jasotzea, bai **barnean** -udalean- bai **kanpoan** egin direnena;

horrela, kulturarekin loturiko fluxu ekonomiko guztiak identifikatuko dira, eta informazioa eransteko prozesuan kontabilitate bikoitzak saihestuko dira. Modu horretan, entitate bakoitzak kulturarekin loturik dituen diru-sarrerak jaso beharko dira (transferentzia arruntak eta kapitalezkoak).

2.5. 2018ko kultura-gastuarekin loturiko informazioa biltzea, gutxienez **hiru ikuspuntu edo azterketa-mailatik** begiratuta, herri-administrazioen berezko aurrekontuzko egituren arabera:

a. Gastu likidatuaren sailkapen organikoa: kulturaren alorrean gastuak egin dituzten esparru edo sailak identifikatuko dira, erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta entitatearen beraren fundazioak barne hartuta.

b. Gastu publikoaren sailkapen ekonomikoa: bertan, partida edo kapitulu handi hauek bereizi behar dira:

o Gastu arrunten barruan:

- 1. kapitulua. Langile-gastuak.
- 2. kapitulua. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak.
- 3. kapitulua. Finantza-gastuak.
- 4. kapitulua. Transferentzia arruntak.

o Kapital-gastuen barruan:

- 6. kapitulua. Inbertsio errealak.
- 7. kapitulua. Kapital-transferentziak.

o Finantza-aktibo eta -pasiboen barruan:

- 8. kapitulua. Finantza-aktiboak.
- 9. kapitulua. Finantza-pasiboak.

c. Gastu publikoaren helburuaren arabeko sailkapena: saileko arduradunek balioztatzeko garrantzi handiena duena, desagregazio-maila handia eta udal txikiaren kontabilitate-egoera bateratu egin behar baititu.

2.6. Datuen azterketa eta lanketa estatistikoa, EAEko kultur aurrekontu kontsolidatua lortzeko, kapitulu ekonomikoen eta kultur azpisektoreen arabera.

2.7. Ahalegin berezia egitea, beharrezkoa denean, kultur gastua kalkulatzeko eta balioesten (aplikatu beharreko koefizienteak), gastu hori beste sektore edo destino batzuekin partekatutako programa edo aurrekontu-partidetan sartuta badago eta dagoen desagregazio-maila nahikoa ez denean.

- 2.8. Atal berezi bat jartzea, udal bakoitzean eta erakunde autonomo, enpresa publiko eta abarretan kulturaren alorrean diharduten langileen banaketa xehea jasoko duena.
- 2.9. Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundien kasuan informazio osagarria eta xehatua jaso (diru laguntza ebazpenak) entitate baten baino gehiagorentzako gastu partiden kasuan, kontsolidazio prozesua errazteko.
- 2.10. Kultura azpisektoreen partidak balidatu: azpisektoreka emandako datuak baieztatu eta arreta berezia jarri bai denbora ikuspegitik bai metodologia ikuspegitik batez ere "Zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak" eta Kultura Ekintza"ri.
- 2.11. Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak: transferentzien partida orokorrak partida desberdinetan bereizi, entitate jasotzaile bakoitzarentzako bana.
- 2.12. Entitateen arteko transferentziei buruzko informazioa kontrastatu: entitateen emandakoa eta aldizkari ofizialetan ageri dena kontrastatu barne transferentzietan jarri beharreko kopuruak doitzeko.

3. Lanaren irismena

- Eragiketaren norainokotasuna bi mailatan gauzatzen da (errola eta laginak):

1. Errola: Eusko Jaurlaritza, hiru foru-aldundiak eta 5.000 biztanletik gorako 68 udalak. Barne hartzen ditu, baita ere, aurreko ente publiko horiek partaide diren erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak.
2. Laginak: neurri txikiagoetakoetan (lurralde historiko bakoitzeko, gutxienez 50 eta gehienez 100eko lagin bat jotzen da). Barne hartzen ditu, baita ere, aurreko ente publiko horiek partaide diren erakunde autonomoak, sozietate publikoak eta fundazioak.

Aurkezten diren proposamenak laginaren norainokotasuna azaldu behar dute, bai eta lurraldez lurraldeko banaketa ere, eta hautatu diren udalak, hau da, titularrak eta ordezkakoak (ez-erantzunen kasuetarako). Dena den, Behatokiak eskumena izango du udal titularrak eta ordezkakoak hautatzeko irizpideak balioztatzeko.

4.- Lan-metodologia eta egin beharreko lanak

Proposamenek Lan Plana zehaztu beharko dute, baita eragiketak eskatutako epean egin ahal izateko kasuan kasuan beharrezkotzat jotzen den antolakuntza ere.

Enpresek proposatutako metodologiek ikuspegi kuantitatibo hutsa gainditu behar dute; beraz, neurri kontagarrien irakurketa sakon bat ahalbidetzen duten eginkizun kualitatiboak jasoko dituzte, bai eta kultura-gastuaren edo -inbertsioaren kasuistika eta arazo espezifikoak ere.

Horretara, enpresen metodologiek planteamendu proaktibo batean oinarritu behar dute, eta entitateen erantzuna eta informazio eskuratzeko prozesuan kalitatea eta koherentzia bermatuko dituen jarduera-multzo bat bilduko du (telefono bidezko laguntza eta kontsulta, bertatik bertarako bisita eta azterketak eta abar), halako moduan non aplikaturiko irizpide eta kontzeptuak homogeenak izango baitira entitate guztien atal beretan.

Proposatzen diren txosten teknikoek entitate edo instituzioen banakako azterketak -kasuan kasuko ezaugarri espezifikoetara egokituak- egitea ahalbidetzen duten informazioa gerturatu, aztertu eta balioztatzeko formulak jasoko dituzte, Kulturaren Euskal Behatokiak homologatutako eta balioztatutako betetze-protokoloari jarraituz.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Kulturaren Euskal Behatokiak, alde aurretik, enpresa esleipenduna eta entitateen arteko elkarlana erraztuko duen komunikazio-prozesua abiatzea aurreikusi dute. Enpresek proposatutako metodologiak, halaber, Behatokiari informazioa jasotzeko prozesuaren ahalik eta ikusgarritasun eta gardentasun handiena bermatuko dio.

Alde horretatik, proposamenek jarduera hauek jaso behar dituzte, gutxienez:

a.- Lehenengo harremana, entitate bakoitzean betetzeko eta erantzuteko ardura duen pertsonak identifikatzeko.

b.- Informazioa biltzeko eta aztertze eragiketa aurkeztea eta azaltzea.

c.- Banakako bilketa eta azterketarako proposamen metodologikoa egitea, nahitaez jasoko duena, gutxienez, udalen erantzuna emateko ardura duen pertsonarekin bertatik bertara elkarrizketa bat, eta gerturatze-moduak eta aurreikusitako gutxieneko harreman-kopurua planteatzen dituen, laginaren fasean hautatutako udal titularrä ordeztu baino lehen.



Aurkezten duten txostenean, instituzio bakoitzaren kontabilitatea biltzeko eta aztertzeko prozesuan aplikatu beharreko protokoloa proposatu beharko dute enpresek, bigarren atalean adierazitako printzipio orokorretan oinarrituta.

Aurkezten duten txostenean, bildutako informazioa arazteko eta balioztatzeko prozesuak azaldu beharko dituzte enpresek, banakako balioztatzea bermatzeko. Horretaz gainera, instituzio bakoitzari beharrezko diren kontsultak egitea ere bermatuko dute, lehen aipaturiko betetze-irizpideen koherentzia eta homogeneotasuna ziurtatzeko.

Behin balioztatu eta gero, berariaz diseinatutako datu-base erlazional batean grabatuko dira galdera-sortak, eta lagin-zatiaren balioztatze sistematikoari eta estimazioa egiteari ekingo zaio. Azkenik, datuak ustiatzeko plan bat egingo da, eta bosgarren puntuko txostenak eta produktuak sortuko dira.

5. Aurkeztu beharreko emaitzak

Emaitzak aurkeztearekin batera, enpresa esleipendunak gutxienez honako produktu hauek entregatu beharko ditu, aipatutako epeak amaitu baino lehen:

Kontratua sinatu eta hilabetera:

- Eragiketa abiatu baino lehen Behatokiak balioztatu beharreko **txosten metodologikoa**, landa-lanean erabiliko den metodologia, teknika eta esku-hartzeak, gertatutako gorabeherak, hobekuntza-proposamenak edo galdera-sortaren aldaketa eta abar jasoko dituen.

Kontratua sinatu eta 5 hilabetera:

- **Inkestaren emaitzen datu-basea**, erregistroak banan-banan grabatuta eta balioztatuta. Datu-basearen formatua Windows-erako Acces, Excel eta SPSS fitxategi batean entregatu beharko da, betiere Kulturaren Euskal Behatokiaren hardware eta software-era egokituta.
- Kulturaren Euskal Behatokiak emandako aldagaien egitura erabiliz, hainbat aldagaien hautaketa jasotzen duten **Access eta SPSS taula** bat edo gehiago.
- **Datuak ustiatu:**
 - a) Erakunde Autonomoen kontsolidazioa. Erakunde Autonomoak egindako gastuaren kontsolidazio prozesua gauzatu ondorengo urratsak emanez:

- Erakunde Autonomoentzako beren-beregizko ustiaketa eta gainera datu basera lotua. Bertan diru sarreraren egitura txertatu eta aurtengo ediziorako onartutako irizpideen arabera jarraitu beharreko kontsolidazio mota zehaztu behar da.

- Erakunde Autonomoei egindako transferentziak: jatorrian eta helmugan emandako datuen arteko bat etortzea konprobatu ostean, entitate eta erakunde autonomoen arteko transferentzien taula sortu. Bat etortzerik ez den kasuetan, erabilitako datuaren iturria zehaztu beharra dago partidan.

b) Gastuaren kontsolidazioa jatorrian/helmugan: jatorrian eta helmugan emandako datuak bat datozela baieztatu ostean, entitateen arteko transferentzien taula sortu. Bat ez datorren kasuan erabilitako datuaren iturria zehaztu beharra dago partidan.

Kontratua sinatu ets 6 hilabetera:

- **Eraitza txostena word formatuan:** azterturiko datuen informazioa eta ustiaketaaren eraitza taulak (tabulazio planaren arabekoak) jaso beharra du bai 2016-2018ko gastu likidatuari dagokiona; bai administrazio mailen arabeko gastuari dagokiona; bai jatorrian kontsolidatutako gastuari dagokiona; bai helmugan kontsolidatutako gastuari dagokiona eta bai enplegu publikoari dagokiona.
- **Eraitzen laburpenaren proposamena:** Eraitza txostenaren laburpen bat izan behar du daturik nabarmengarrienekin.
- **Erakunde Autonomoen kontsolidazioari buruzko txostena word formatuan:** estatutuen arabeko partaidetza, sarreraren egitura, ezarri beharreko kontsolidazio mota eta -proportzio bidezko kontsolidazioen kasuan-kontsolidazioen ehunekoa jaso beharra du txostenak erakunde autonomo guztien kasuan.
- **Estatistikaren eraitza nagusiak** jasoko dituen txostena, datu kuantitatiboak eta ondorio kualitatiboak barne.
- **Informazio iturrientzako banakako txosten edota fitxa:** eragiketa estatistikoaren informazio iturri izan diren bakoitzarentzako banakako txosten edo fitxak egin euskarri digitalean.
- Gorabeherei buruzko **aldizkako ohar metodologikoak**, garatutako eragiketarekin eta lortutako informazioarekin zerikusia dutenak.

Sortutako dokumentazio guztia EAEko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko da.



6.- Lantokia

1. Kontratuaren helbururako egin beharreko lanak enpresa esleipendunak horretarako ezarritako lokaletan egingo dira; lokalak ez dira inolaz ere Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarenak izango.

2.- Aurreko puntuan xedatutakoak ez du kentzen inkestaren helburu diren eragileen egoitzetan landa-lana egin ez daitekeenik.

7.- Mendekotasun funtzionala eta organikoa

Ez Kulturaren Euskal Behatokiak, ez Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, ez dute inolako loturarik langile horiekin (ez lan-harremanik, ez kontraturik, ez harreman funtzionalik, ez bestelako loturarik), ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez amaitu ondoren.

Horrenbestez, ez Kulturaren Euskal Behatokiak, ez Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, ez dute inolako erantzukizunik izango hirugarrenei eragindako kalteengatik, enpresa esleipendunaren legezko ordezkarien, enpresako kolaboratzaileen edo zerbitzu ematen diotenen ekintzen edo omisioen ondorioz.

8.- Lanen jarraipena

Lanen jarraipena Kulturaren Euskal Behatokiari dagokio, zeina enpresa esleipendunarekin batera adostutako prozedura eta egutegiaren arabera gauzatuko den, beti ere, Kulturaren Euskal Behatokiaren gidaritzapean.

Lanerako kronograman zehaztutako zeregin bakoitzaren eraginkortasunaren, efizientziaren eta kalitate-mailaren jarraipena egiteko prozesuaz arduratuko da Kulturaren Euskal Behatokia. Horrenbestez bermatuko da helburuak eta kalitate-irizpideak betetzen direla azterketaren fase bakoitzean.

9.- Enpresa esleipendunaren betebeharrak

Enpresa esleipendunak ezingo ditu beretzat erabili, ezta besteei eman ere, kontratatutako lanari dagozkion datuak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren berariazko baimenik izan ezean. Horren haritik, esleipendunak aurkezpenaren xede diren elementuak entregatzen

dituenetik, aitortu eta ziurtatu behar du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskatuz gero, titulartasuna Administrazioari dagokiola, aipatutako eremuan.

Kontratazioarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskuratzen ditu, halaber, eratzen diren datu-baseen ustiapen ekonomikoak eragin ditzakeen jabetza intelektualaren eskubideak, baita prestazioan sortutako dokumentuek eta elementuek eragin ditzaketenak ere (elementu bereizgarriak barne hartuta). Eskubide horiek dira erreprodukzioari, banaketari, komunikazio publikoari, eraldaketari eta abarri dagozkienak eta ustiapen ekonomikoa ekar lezaketenak, mundu guztian, hizkuntza guztietan eta prozedura guztietan, legediak ezarritako data eta epeetan, jabari publikokoak izan arte, jabetza intelektualari buruzko araudiak xedatutako baldintzak eta mugak aintzat hartuta.

Dokumentu guztiak eta gainerako elementuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eskuetan jarriko dira, helbide honetan: Kultura Sailburuordetza. Lakua I eraikina, 2. solairua. Donostia-San Sebastian kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Kontratua gauzatzeko aldiari, prestazioa zuzen egiten dela egiaztatzeko eskubidea du Administrazioak; halaber, prestazio hori baldintza administratiboen agirian, oinarri teknikoaren agiri honetan eta esleipendunaren eskaintzan xedatutakoarekin dat datorrela egiaztatzeko eskubidea du. Alde horretatik, sortzen diren arazoak konpondu edo egokitu beharko ditu esleipendunak, adierazten zaion epearen barruan.

10.- Segurtasuna eta konfidentzialtasuna

Lanak bideratzeko enpresak eskuratzen edo biltzen dituen datuak babestuta daude, aplikatu beharreko xedapenen bidez, hau da, indarrean dagoen Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 Araudia (UE), 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki lotuta pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta garatzen duen Legea, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Bai enpresa esleipendunak, bai kontratua gauzatzeko zuzenean edo zeharka esku hartzen dutenek, estatistika-sekretua gordetzeko betebeharra eta arlo horretako araudia bete beharko dituzte.

Enpresa esleipendunak beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartu beharko ditu, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu



horiek aldatzea, galtzea edota baimendu gabeko tratamendua edo sarbidea ematea saihesteko.

Langileei buruzko arauak: Enpresak, kontratazioaren hasieran, kontratatutako eragiketetan, zuzenean edo zeharka, parte hartzen duten langile guztien -bai informazioa jasotzeaz, bai informazio hori tratatzeaz eta baliozkotzeaz arduratuko diren langileen- zerrenda zehatza bidaliko du Kulturaren Euskal Behatokira, eta langile horiek eragiketetan dituzten funtzioak eta zereginak, nahiz Kulturaren Euskal Behatokiak emandako informazioarekin edo enpresak prestatutakoarekin lotutakoak, zehaztu beharko ditu, baita zein eragiketetan eta zenbat denboran egingo duten lan ere. Langile-aldaketarik gertatuz gero, gehienez astebeteko epean Kulturaren Euskal Behatokiari jakinaraziko zaio.

Segurtasun-arauak euskarri elektronikoak kudeatzeko orduan: Inkestaren fitxategi edo taulen tratamenduari dagokionez, informazioarentzat segurtasun handiena eskaintzen duen ingurunean egin beharko da; beraz, erabiltzen diren ekipamendu informatiko guztiek sarbideko gako pertsonalak izan beharko dituzte eta atakak blokeatuta, informazio-mugimenduak pertsona berberen kontrol pean egon daitezzen beti.

Kontratatutako enpresak Kulturaren Euskal Behatokiaren eskura jarriko du kontratatu diren lanei buruzko informazioa duten fitxategi eta taula guztien erregistro eguneratua; bertan, izenak, bertsioak, euskarriak, eta informaziora sartzeko diren edo sartzeko baimena duten pertsonen izenak adieraziko dira, behar diren identifikazio-datu guztiekin berehala aurkitu ahal izateko. Halaber, operatiboari buruz informazioa duen gainerako materialaren erregistro eguneratua izango du, goian aipatutako antzeko baldintzetan.

Enpresa esleipendunak beharrezko neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak hartu beharko ditu, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datu horiek aldatzea, galtzea edota baimendu gabeko tratamendua edo sarbidea ematea saihesteko.


Kulturaren Euskal Behatokiak, enpresarekin adostuta, informazioa - euskarria edozein dela ere- deuseztatzeko edo ezabatzeko egutegi bat finkatuko du. Prozesu horiek bukatu ondoren, akta jasoko da. Kulturaren Euskal Behatokiak, aipatutako zereginak bete diren egiaztatzeko, ikuskapena egin ahal izango du.

Enpresa esleipendunak edo enpresa horren kide batek datuak beste helburu batzuetarako erabiltzen baditu, jakitera ematen baditu, edota kontratu honetan zein segurtasun-dokumentuan xedatutakoa urratuz erabiltzen baditu, ulertuko da kontratua ez duela bete. Horrenbestez, kontratua baliogabetuko da eta kalte-galerak ordaindu beharko ditu, dagokion erantzukizun zibilaren, penalaren edo administratiboaren kalterik gabe.

Horretarako, zuhurtasun-neurririk zorrotzenak ezarri beharko dira datuetarako sarbidean. Neurri horiek urratzea oso larritzat joko da, eta kontratua deuseztatzeko kausa izango da, erantzukizun penalak edo beste era batekoak izateko aukera baztertu gabe.

Esleipendunak ezingo du inoiz egin jasotako datuei buruzko edo prestatutako txostenaren edukiei buruzko adierazpen publikorik, Eusko Jaurlaritzaren berariazko eta aurretiazko baimena izan ezean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 22a.



Mikel Etxebarria Agirresarobe
Kultura Plangintzarako arduraduna